# INFORMAZIOAK
# INFORMACIONES

## LEGEBILTZARREKO ORGANOEN ERABAKIAK ETA KOMUNIKAZIOAK
## ACUERDOS Y COMUNICACIONES DE LOS ÓRGANOS PARLAMENTARIOS

*Erabakia, zeinaren bidez arautzen diren faktura elektronikoak bidaltzeko gutxieneko zenbatekoa eta Administrazio parlamentarioan fakturazio elektronikoa sartzea*
(10/25.03.00.0014)

Mahaiak 2015eko martxoaren 3ko bileran, agindu du Eusko Legebiltzarraren Aldizkari Ofizialean argitara dadila ondoko erabakia.

**Eusko Legebiltzarreko lehendakariak**
**Bakartxo Tejeria Otermin**

EUSKO LEGEBILTZARREKO MAHAIAREN ERABAKIA, 2015EKO MARTXOAREN 3KOA, ZEINAREN BIDEZ ARAUTZEN DIREN FAKTURA ELEKTRONIKOAK BIDALTZEKO GUTXIENEKO ZENBATEKOA ETA ADMINISTRAZIO PARLAMENTARIOAN FAKTURAZIO ELEKTRONIKOA SARTZEA

Faktura elektronikoa sustatzeko eta sektore publikoan fakturen kontularitza-erregistroa sortzeko abenduaren 27ko 25/2013 Legeak faktura elektronikoaren erabilera eta fakturen kontularitza-erregistroa arautzen ditu, administrazio publikoetan.

Lege horretako 1. xedapen gehigarrian xedatutakoaren arabera, Estatuko konstituzio-organoek eta legegintza- eta kontrol-organo autonomikoek "Administrazio Publikoetarako Lege honetan ezarritako arauetara egokituko dute beren jarduna".

Lege horretako 4. artikuluan, aukera orokor gisa ezartzen da Administrazio publikoaren ondasunedo zerbitzu-hornitzaile guztiek faktura elektronikoa jaulkitzea eta bidaltzea. Aldi berean, xedapen horrek berak aipatzen ditu faktura elektronikoa nahitaezkoa den kasuak eta, azkenik, aukera zabaltzen du administrazio publikoek erregelamendu bidez salbuesteko nahitaezko fakturazio elektronikotik 5.000 eurora arteko fakturak.

4. artikulu hori 2015eko urtarrilaren 15ean sartu da indarrean, eta orain Legebiltzarra egin beharrekoak egiten ari da faktura elektronikoak sartzeko puntu orokor bat izateko.

Hala ere, arautu beharra dago fakturazio elektronikorako gutxieneko zenbatekoa, bai eta, aldi baterako, Eusko Legebiltzarrera bidaltzen diren faktura elektronikoak sartzeko araubidea ere.

Ondorioz, eta Eusko Legebiltzarraren Erregelamenduko 36.1 artikuluak ezartzen dituen eskumenak

*Acuerdo por el que se regula el importe mínimo para la remisión de facturas electrónicas y el acceso de la facturación electrónica en la Administración parlamentaria*
(10/25.03.00.0014)

La Mesa, en su reunión del día 3 de marzo de 2015, ordena la publicación del siguiente acuerdo en el Boletín Oficial del Parlamento Vasco.

**La presidenta del Parlamento Vasco**
**Bakartxo Tejeria Otermin**

ACUERDO DE LA MESA DEL PARLAMENTO VASCO, DE 3 DE MARZO DE 2015, POR EL QUE SE REGULA EL IMPORTE MÍNIMO PARA LA REMISIÓN DE FACTURAS ELECTRÓNICAS Y EL ACCESO DE LA FACTURACIÓN ELECTRÓNICA EN LA ADMINISTRACIÓN PARLAMENTARIA

La Ley 25/2013, de 27 de diciembre, de impulso de la factura electrónica y creación del registro contable de facturas en el Sector Público, regula el uso de la factura electrónica y el registro contable de facturas en las administraciones públicas.

Conforme a lo dispuesto en la disposición adicional 1.ª de la citada ley, los órganos constitucionales del Estado y los órganos legislativos y de control autonómicos "adaptarán su actuación a las normas establecidas en esta Ley para las Administraciones Públicas".

En el artículo 4 de dicha ley se establece la posibilidad general de que todos los proveedores de bienes o servicios de la Administración pública expidan y remitan factura electrónica. Al propio tiempo, el mismo precepto relaciona los supuestos en los que la factura electrónica es obligatoria y finalmente abre la oportunidad de que las administraciones públicas excluyan reglamentariamente la obligación de facturación electrónica a las facturas cuyo importe sea de hasta 5.000 euros.

Este artículo 4 ha entrado en vigor el 15 de enero de 2015, y en este momento el Parlamento se encuentra realizando las acciones necesarias para contar con un punto general de entrada de facturas electrónicas.

No obstante, es preciso regular el importe mínimo para la facturación electrónica y transitoriamente el régimen de acceso de las facturas electrónicas que se remitan al Parlamento Vasco.

En su virtud, y en uso de las competencias atribuidas por el artículo 36.1 del Reglamento del Parla-

erabiliz, Mahaiak, Bozeramaileen Batzordeak 2015eko otsailaren 24ko bileran aldeko iritzia azaldu duelarik, ondorengo hau onartu du

ERABAKIA

**1. artikulua. Xedea**

Erabaki honen xedea da ezartzea fakturak nahitaez bide telematikoz bidaltzeko gutxieneko zenbatekoa eta Administrazio parlamentarioan fakturazio elektronikoa sartzeko puntua.

**2. artikulua. Aplikazio-eremua**

Erabaki honetan aurreikusitako erregulazioa Administrazio parlamentarioko organo guztiei aplikatuko zaie.

**3. artikulua. Nahitaez faktura elektronikoa aurkeztu beharra**

1. Abenduaren 27ko 25/2013 Legearen 4. artikuluan aipatutako entitateek nahitaez jaulki eta bidali beharko dute faktura elektronikoa, Eusko Legebiltzarrari egindako zerbitzuengatik eta emandako ondasunengatik.

2. Salbuetsi egiten dira nahitaezko fakturazio elektronikotik guztira 5.000 euroko edo gutxiagoko fakturak (BEZa barne).

**Xedapen iragankor bakarra. Fakturazio elektronikoa sartzeko puntua**

Eusko Legebiltzarrean fakturazio elektronikoaren zerbitzua eta fakturazio elektronikoaren kontularitza-erregistroa arautzen ez den arte, abenduaren 27ko 25/2013 Legearen 4. artikuluan aipatutako entitateek helbide honetara bidaliko dituzte faktura elektronikoak: fakturak@parlam.euskadi.net, edo fakturak@legebiltzarra.eus, edo fakturak@parlamento.eus, posta elektronikoaren bidez.

**Azken xedapenetako lehenengoa. Garatzeko gaikuntza**

Eskumena ematen zaie legelari nagusiari eta Kontu Hartzailetzari erabaki hau betetzeko beharrezko jarraibideak emateko.

**Azken xedapenetako bigarrena. Indarrean sartzea**

Lege hau Eusko Legebiltzarraren Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean sartuko da indarrean.

Orobat argitaratuko da Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian.

***

mento Vasco, la Mesa, mediando el parecer favorable de la Junta de Portavoces en su reunión de 24 de febrero de 2015, ha aprobado el presente

ACUERDO

**Artículo 1. Objeto**

El presente acuerdo tiene por objeto establecer el importe mínimo para la remisión obligatoria de facturas por vía telemática y el punto de acceso de la facturación electrónica en la Administración parlamentaria.

**Artículo 2. Ámbito de aplicación**

La regulación prevista en el presente acuerdo es de aplicación a todos los órganos de la Administración parlamentaria.

**Artículo 3. Obligación de presentación de factura electrónica**

1. Las entidades indicadas en el artículo 4 de la Ley 25/2013, de 27 de diciembre, estarán obligadas a expedir y remitir factura electrónica, por los servicios prestados y bienes entregados al Parlamento Vasco.

2. Se excluye de la obligación de facturación electrónica a las facturas cuyo importe total (IVA incluido) sea igual o inferior a 5.000 euros.

**Disposición transitoria única. Punto de acceso de la facturación electrónica**

En tanto en cuanto no se regule en el Parlamento Vasco el servicio de facturación electrónica y su registro contable de facturación electrónica, las entidades indicadas en el artículo 4 de la Ley 25/2013, de 27 de diciembre, remitirán las facturas electrónicas a la dirección fakturak@parlam.euskadi.net, o fakturak@legebiltzarra.eus, o bien fakturak@parlamento.eus, a través del correo electrónico.

**Disposición final primera. Habilitación de desarrollo**

Se faculta al letrado mayor y a la Intervención General para dictar las instrucciones necesarias para la ejecución de este acuerdo.

**Disposición final segunda. Entrada en vigor**

El presente acuerdo entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del Parlamento Vasco.

Asimismo, se publicará en el Boletín Oficial del País Vasco.

***